

itxiak ez du zerikusirik. Noski, Autonomien Estatua entelekia bat izateak ez du zerikusirik... Ez zerikusirik eta ez errurik, noski.

Zazpi bizietarik bat misiolaritzara emango lukeela ere esan du Mariok, bere herrian misiolari izatera, gainera. Lan gaitza, baina itxuraz bakarrik gogorra, ordaintsaria zeruan ez baino gortean jasotzen denean. ■ *Joan Larrinaga.*

Balendin Enbeita hil da

Azaroaren 20an, Galdakaoko ospitalean hil zaigu Balendin Enbeita (1906-1986), laurogei urte zituela, gaitzak baino ezbeharrak jota. Familiartean, lagunartean edo plazetan abestutako milaka bertsoaren ondoan bi liburu utzi ditu Balendinek, idatzita: *Nere apurra* liburuan (Auspoa, 117-118 zk., Tolosa, 1974) bertsoak eman zituen, eta *Bizitzarøñ joanean obran*, berriz (Elkar, 1986), bere oroitzapenak hitz lauz bildu ditu. Azken honi beste batekin segida ematen ari zela joan zaigu Bizkaiko bertsolari zaharra. Goian bego, orain ia berrogei urte ezagutu nuen adiskidea.

Balendin, Kepa Enbeita "Urretxindorra"ren (1878-1942) semea zen (ik. S. Onaindia: *Gure Urretxindorra*, Ekin, Buenos Aires, 1971) eta harengandik eta senitartean zaindutako bertsozaletasuna bizirik izan du bizitza osoan. Familiako tradizio baten maiorazgoa jaso zuen, eta berorren erantzukizuna eta harrotasun leiala maitekiro gorde ditu azkeneraino Balendinek. Gerraurrean, aitaren ondoan hamazortzi urterekin hasitako lanari, belaualdien etenen gainetik, etenik gabeko jarraitasuna eman dio, bere familian, aita zenarena jasoz eta semeengana luzatuz.

Bertsolaritzari zeregin sozial berria eman zion bere garaian "Urretxindorra"k, bere gaitasun hura ekintza politiko abertzalearen zerbitzutan jarritz. Balendin ere ildo horri jarraiki zitzaien: "Herriko jaietatik aparte, hauteskunde garaian, ez nintzen gelditu ere egiten. Behin, egun berean, sei mitinetan parte hartu beharra izan neban" idatzi-berri du Balendinek, gerraurreko lan haiek gogoratuz. Tabernako bertsolaritzaren mugak hautsi egin zituzten, beraz, Enbeitatarrek, gero esan eta egingo zirenei aurrea hartuz (ik. zer zioen M. Lekuonak 1930ean: *Idazlan guztiak. I. Aozko literatura*, Kardaberaz, Gasteiz, 1978, 213. or.).

Gerrateondo zitalaren ondoren, zailagoa izan zen agian Bizkaian bertso-lanari berriz ekitea, baina ahal izan zenetik (1955), plazetako saioaldietan eta eratu-berri ziren txapelketetan (Bizkaikoan txapeldun, 1958, 1959) ez zuen huts egin. Baina Balendini eta inguruko bertsolari lagunei zor diegun asmo aitzindaria batez ere bertso-eskolareña izan da: saiatuz eta elkarrekin arituz hobetu egin zitekeen ofizioa, eta lan hori zergatik ez zen lagunartean modu formal eta eratu batean egingo? Hirurogeitako lehen urteetan, ikustekoak ziren Muxika/Areatzako "Garriko" deitu bertso-eskolako lagunak lehia eta gogoia.

Bertso-lanean ez-ezik, barruti pertsonalagoan ere, familian alegia, emazte Klara eta seme-alabekin batera, bere sendi abertzale irekia eskaini zien euskaldunberritu nahirik baserrira zetozkien. Kontu egin orain hogeitamar urteko kontakizunekin ari naizela: ez zegoen euskaltegirik, ez itxurazko ikasmetodorik, baina Bilboko X. Peña tolosarrak, adibidez, Ormaetxera eramaten zituen bilbotarrak murgil-metodoaz euskaldun zitezten. Zilegi bekit, nere aldetik, nik ere neurca gogoratzca: familia euskaltzale batetik gentozenok, Enbeitatarren etxean, Balendin eta Klararenean, zerbait berria topatu genuen: familia euskaltzale abertzale baten militantzia eta burubide erudugarria, guretzat ere nahi genuen tradizio egin eta bizi baten arnasa. Etxe hartan ikusitakoak eta handik *Jakin*-era luzatu zen presentziak aldizkarian ere izan du lekurik.

Hain zuzen, Kepa Enbeitak, Balendinen seme zaharrenak, aldizkariaren Zuzendaritzan ziharduen oraindik hasi-berriak ginen hartan (1959-1961), aurreko zuzendarien erantzukizunak hartuz. Balendinek berean eta beretik ereindakoa gurera ere iritsi zen, hortaz, pertsonalki emandakoarekin eta gure artean izandako bere semeen bidez (Kepa, Abel, Moises, Jon) gurean egindakoarekin. Balendin galtzean, neure bizitzako kapitulu bat ere burutu dela csango nuke. Sinbolo bat ere baden famili tradizioan urrezko katebegia izan da Balendin. Ohore eta esker on gutartean bete duen biziadiari! ■ *Joseba Intxausti*.